

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OIARTZUNGO UDALAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak (aurrerantzean, HKEE) joan den ekainaren 29an aho batez onartu zuen Oiartzungo Udalaren ekonomiaren eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2020ko ekitaldiari buruzkoa.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du, nahiz Epaitegiak ezin zehaztu izan duen Aktibo ez-korronteko saldoak egiazko egoera erakusten duen. Horrez gain, Kontu orokorraren memoriak ez du dirulaguntzak jasotzen dituzten 8 entitaterekin hartutako konpromisoen berri ematen, ez eta Udalak erabilera anitzeko eraikinaren obra finantzatzeko hartu zituen konpromisoen berri ere.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Aurrekontuaren egonkortasun helburuak direla eta, 2020an bertan behera utzi ziren toki entitateen arau fiskalak, nahiz erreferentziazko tasa batzuk zehaztu ziren. Oiartzungo Udalaren kontu-hartzaitzak txostena egin zuen, eta egiaztatu zuen ez zituela aipatutako tasak gainditu, eragiketa ez-finantzarioen superabita izan zuelako eta zor erreal biziaren bolumena abenduaren 31n % 3,8koa zelako, ezarritako % 70en azpitik.

Udalak **zuzentasunez bete du** 2020an jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen **lege araudia**, nahiz unean uneko akatsak azalerratu diren Kontratazioan, izan ere, zergen ikuskaritzan laguntza kontratu bat egin zen, horren xedea funtzionarioentzako berezia egonik; eta taxi bidezko garraio publikoaren zerbitzu bat hitzarmen bidez formalizatu zen, kontratu bidez egin beharrean. Gainera, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa ez dago Udalari atxikia, indarreko araudiak agintzen duen moduan.